



**2018KO EKAINAREN 15EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren hamabostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakari-tzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko ekainaren 1ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 47 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO (93.736,35 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 18-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2018ko maiatzaren 18an, onuradunaren borondatez.
- 18-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2018ko maiatzaren 5ean, astelehenetik ostiralera eguneko 3 ordu, laguntza pertsonala eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkarteari diru laguntza.-

2018ko urteko diru laguntzaren erdia orain ematea, ondorengo xehetasun honen arabera:

- Urteko ekintzen garapenerako: 3.521,00€
- Oinarrizko egituraren funtzionamendurako: 1.250,00€



Ludoteka zerbitzurako diru laguntza.-

Haur hezkuntzatik seigarren maila artean dauden eta bere espedientean agertzen diren 13 haurri, ludoteka zerbitzura joateko kuotaren pareko, hau da, bakoitzari 75,00 €ko diru laguntza ematea. Ematen den diru laguntza, guztira, 975,00 €.

IV.- SAN PRUDENTZIO JAIETAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Lazkaoko Txirrindulari Elkartea.-

2018ko San Prudentzio jaietan hiru txirrindulari proben antolaketarengatik 13.441,60 €ko diru laguntza ematea. Apirilean 6.000,00 € aurreratu zitzairen, beraz orain emango zaiena 7.441,60 € izango da.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) Orobione jubilatuen tabernako prezioen inguruko xehetasunez galdetzen du eta alkateak eskatutakoari erantzun egiten dio.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA